



## Euskal Herriko kostaldea (VI): Gipuzkoako hondartzak

Mikel Estonba Mintxero\*

### Hondarribia

Mende honen hasieran Ingalaterrako botanikoeek Euskal Herriko landaredia aztertzeke egin zituzten irteereko kronikatan, HondarribiaTxingudi badian zegoen hondartzako dunetako landare-dibertsitatea eta originaltasuna azpimarratu bazuten ere, egun, ez da ezertxo ere geratzen altxor ekologiko horretatik, Hondarribiako herriaren hedapenak eta Bidasoa ibaiaren bokalea kanalizatzeak desagertarazi egin baititu antzinako hondartza zoragarria eta bere dunak.

Bere ordez, gaur egun Hondarribiako espigoiaren ondoan sortu den hondartza artifiziala topa dezake. Hau, aisialdirako lehengoa baino egokiagoa bada ere, ikuspegi ekologikotik pobre samarra da. Hala ere, azken urte hauetan

M. Estonba



Hondarribiako oraingo hondartza artifiziala. Ikuspegi ekologikotik askoz ere pobreagoa da.

Mende hasierako grabatu horretan, dagoeneko desagertu diren duna zoragarriak ikus daitezke.

**M**aiatzako eta ekaineko aleetan Euskal Herriko hondartzak ezaugarri ekologiko eta geologiko nagusien eta Lapurdiko hondartzak egungo egoeraren, hurrenez hurren, berri izan zuten gure irakurleek. Oraingoan, berriz, Gipuzkoakoen txanda da.

Gipuzkoa ez da ezaguna bere hondartzengatik, bere kosta labartsuak leku gutxi uzten baitu horrelako elementu geomorfologikoen eraketarako, baina edertasun handiko hondartzak ditu ibaien itsasadarretan.

Hala ere, Lurralde honek azken urte hauetan izan duen biztanle-kopuruaren hazkunde handiak,

kostaldekoko herrietan nabaritu da bereziki, bertako ekosistema baliotsuak erasotu egin ditu eta hondartzak ez dira horretaz libratu. Azter dezagun hondartzak egoera herriz herri.



M. Estonba



Duna txiki batzuk agertu dira azken urte hauetan Hondarribiako hondartzaren atzealdean.

hondartzaren eskuinaldean duna txiki batzuk sortu dira eta zenbait gramineo psammofiloak ikus daitezke bertan. Atzerago, hondartzaren atzealdean dagoen aparkalekuaren ondoan, belardi heze handi bat dago eta Gipuzkoa osoan Txingudin soilik ikus daitekeen apo lasterkariaren (*Bufo calamita*) populazio handi bat bizi da bertan.

Ez dunak, ezta apoak ere, ez dira lasai bizi. Lehenengoak, Hondarribiako udalak hondartzako "belartzarrak" kentzeko asmoz, urtero dunetako landareak ateratzen dituelako Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak atzealdean kirol-kai bat eraiki nahi duelako.

## Donostia

Gipuzkoako hiriburuaren ospeak bere hondartzean aparteko eragina izan badute ere, bertan bultzatu den hirigintz-garapena dela eta, gaur egun egoera larrian daude. Interesgarria litzateke historian atzera egitea, egoera kezagarri horren jatorria hobeto ulertzeko.

Egun ezagutzen dugun Donostia Urgul irlaren tonboloan, badia-aren hareatzetan eta Urumea eta Ibaeta ibaien itsasadarren paduretaren eraikita dago. Hiria hazi

den heinean, inguruak bete egin dira eta horren ondorioz, Urumeako padurak minimoetara murriztu ezezik, Gros eta Ondarretako dunak desagertu egin dira eta Kontxako hondartzaren hondartza gorena asfaltopean azpian geratu da, marea bizitako egunetan hondartza erabat urez estalirik geratzen delarik.

Sarraski horren ondotik, eta hondartzaren berreskuratze-plannaren izenean, Groseko eta Kontxa hondartzetara harea eramateko lan garestiak eta ekologiko ki oso kritigarriak (hare erauzketak kalte handiak sortzen baititu

hondo bigunen itsas ekosistematan) bultzatzen ari dira, irtenbidea ingurugiroa errespetatzen duen hirigintza garatzea dela kontutan hartu gabe.

## Orio

Talaimendi eta Mendizorroztz mendien artean dagoen ebakidura estuan, itsasoratzen da Ori ibaia. Itsasadar zoragarri horren bokaleko barrak, nabigazioa dela eta, buru hausteak sortarazi dizkie betidanik Orioko arrantzaleei.

U. Cariñena



Urguleko tonboloa, Kontxako badia eta Groseko hareatzen erreproduktzioa.

Groseko hondartza eta dunak suntsitu ondoren, milaka milioi gastatu dira antzeko zerbait berreskuratzeko. Erotuta al gaude?

M. Estonba





M. Estonba



M. Estonba



Urbanizazioaren ondorioz, dunetako landareak eraikuntza artean agertzen direnetera mugatu dira.

ratu diren aztarna txiki batzuetara murriztu dira.

Oriako itsasadarraren ezkerraldean, Talaimendiren atzean, Oriabarreko hondartza zoragarria dugu. Militarren kanpamentua egon zen hondartza horretan. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aterpe bat dago bertan. Hala ere, eraikuntza horiek eta Bilbo-Behobia autopistaren zubiak ingurua dezente itsusitu badute ere, oraindik nahikoa ondo mantentzen da hondartza hau.

Oriko Antilla hondartzan eta azken muturreraino eraman dira eraikuntzak, egungo egoera penagarria, horren ondorioa da.

Oriko Oriabarreko hondartza.

Gaur egun, arazoa konponduta ez dagoen arren, Oriako itsasadarra kanalizatuta dagoela ikus daiteke, horrek orain dela urte batzuk Oriko herria inguratzen zizuten padura gehienak lehortu ezezik, bere dunengan aldaketa nabarmenak ere eragin ditu. Dena den, aldaketarik kaltegarrienak gizakiak eragindakoak dira, Oriako duna zoragarriant Orioko udaletxeak kanpina, futbol-zelaia, aparkaleku erraldoia eta hainbat taberna eraiki baititu, eta, dunak eta bere landaredia, eraikuntzen artean isolaturik ge-

M. Estonba







Zarauzko dunak dira Gipuzkoako zabalena eta dibertsoena. Bertan Zarauzko Izadi Taldeak egiten ari den lana, Euskal Herriko gainerako dunetan egin beharko litzatekeenaren eredu izan daiteke.

MOPTMA delakoak Zarauzko dunetan zurezko plataformak ipini ditu. Obra horiek bere alde

onak eta txarrak ditu. Alde bate-tik, golf-zelaiari puska bat kendu dio pasealekua egiteko eta horrek, dunak gutxiago zapaltzea ekarriko du berarekin seguruenik. Gainera, dunak itxi egin dira jendearen pasabidea galarazi asmoz eta Zarauzko Izadi Taldea dunak birlandatzen ari da. Euskal Herri osoan eman den lehen kasua da. Baina, bestetik, ezin da ukatu, pasealekua eraikitzeak gizakiaren eragina areagotu egingo duela, hori Zarauzko dunentzat kaltegarria izan daitekeelarik.

Arazoa sahiestu nahian, Zarauzko Izadi Taldeak, udaletxearen laguntzarekin, hainbat informazio-panel ipini ditu inguruan, jendeak, ekologi ikuspegitik hain garrantzitsua den ingurunea errespeta dezan.

## Zarautz

Zarauzkoa dugu dudarik gabe Gipuzkoako hondartzarik luzeena. Jatorria, Zarautz inguruan itsasora zabalik zegoen badia itxi zuen hare metaketa izan zen. Baina gaur egun, zabalera txikia du, Zarautz dunen gainean eraiki eta zabaldu baita.

Ikuspegi ekologikotik hondartzaren eskuinaldea da garrantzitsua, bertan Inurritza erreka padura eta kanalizaziorik gabeko bokalea ezezik, golf-zelaiari eta bere aurrealdean mantendu diren dunetan Gipuzkoako landaredi psammofiloaren ordezkari-tzarik dibertsoena eta zabalena ere baitago.

Duna-puska horren iraupena, ordea, ez da batere segurua, golf-zelaia eraikitzeak suposatu zuen jipoiari, ekaitz-egunetan itsasoak dunengan eragiten duen higadura handia eta gizakiaren eragin itzela gehitu zaizkio.

Une honetan Zarauzko itsas pasealekuaren segida modura,





**Getaria**

Getarian bi hondartza txiki daude, San Anton mendia eta lehorra lotzen duen istmoaren alde banatan. Eskuinaldean, Getariako portuko dikeen eraikuntzaren ondorioz sortu zen Malkorbe hondartza dugu. Hondartza artifizial eta txiki horrek ez ditu duna sortzeko baldintza egokiak eskaintzen eta horregatik ikuspegi ekologikotik ez du garrantzi handirik.

Gaztelape hondartza istmoaren ezker aldean dago eta itsasora zabalik dagoen hondartza da. Mendipean sortu den hondartza hori ez da hareazkoa bakarrik,

M. Estonba



Zumaiaiko Santixo hondartzak, Zarauzkoaren modura, duna handiak eta egituratuak ditu.

**Getariako Gaztelupe hondartza.**



M. Estonba

**Itzurun hondartza. Zumaia.**



hartxintxarrak ere baditu. Bere egitura dela eta, gaur egun ez du dunik garatzeko ahalmenik.

**Zumaia**

Urola ibaiaren itsasadarran eraiki zen herri honek, bi motako hondartzak ditu. Alde batetik, ibaien bokaletan agertu ohi diren barra eta hareatza jatorria duen Santixo hondartza zoragarria, eta bestalde Zumaia eta Deba artean dauden itsaslabar ikusgarrien oinpean sortutakoak. Santixo hondartza, une honetan kirol-kaia eraiki nahi dutelako

desagertzean dagoen Santixoko padura ederretik Zuloaga pintorearen etxeak banatzen du. Hondartza horretan, Zarauzkoak bezalako duna zoragarriak ikus daitezke. Duna horietan, giza-presioa handia bada ere, nahiko ongi kontserbatzen da eta oraindik, dunen zati desberdinak ere bereiz daitezke. Beste hondartzetatik, Itzuruneko bakarrik aipatuko dugu artikulua honetan gainerakoak Euskal Herriko labarrak aztertzerakoan aipatuko baititugu. Itzurun hondartza, Zumaia herriaren atzealdean dauden itsaslabarren oinpean dago eta bere kokapena eta



M. Estonba



Debako hondartza.

zabalera medio, ez du duna-egiturarik. Bere balioa, hondartza inguratzen dituzten labarretan dago. Baina horretaz, arestian esan bezala, beste artikulu batean hitz egingo dugu.

## Deba

Deba ibaiaren bokalean bi hondartza daude. Eskuinaldean, Deba ibaiaren itsasadarra kanalizatu aurretik bertan sortzen zen ba-

rraren lekukoa den, Deba hondartza. Hondartza handi horrek, duna zoragarriak izango zituen garai batean, baina Deba herriaren zabalpenak, trenbideak eta turismoa indartzeko hondartza gorenan egin diren lanek erabat suntsitu dituzte.

Bokalearen ezker aldean berriz, Mutrikuko Ondarbeltz hondartza dugu. Balio ekologiko gutxiko hondartza hau ibaiaren kanalizazioarako ezker aldean eraiki zen espigoiak sortarazi zuen. Deba ibaiak duen populazioaren lekuko dugu eta bere izenak oso ondo adierazten duen moduan, harea iluna du.

## Mutriku

Mutriku herriaren lurretan, aurrez aipatu dugun Ondarbeltz hondartzaz gain, beste hiru daude. Hiru horietatik, bik Galdonamendi itsaslabarren pean daude,

bata Mutrikuko portuaren ondoran eta bestea, mendebalderago dagoen Zazpi Hondartzak deritzona. Hondartza txiki eta arriskutsu horrek dituen harri ugari dela eta, bertakoek zazpi hondartza txikiagoz osatuta dagoela diote, eta hortik datorkie izena.

Baina, hirugarrena da dudarik gabe interesgarriena. Saturraran hondartzaz ari gara. Saturraran erreken bukaeran eta Ondaruko badiaren eskuinaldean dagoen hondartza zoragarri horrek, zituen balio ekologiko garrantzitsuenak galdu egin dituzten artean. Erreken bokalea kanalizatzerakoan zuen padura txikia suntsitu egin zen. Bestalde, hondartzaren atzealdean altxa diren eraikuntzak eta giza-kiaren eskuhartzeak, hondartzaren antzinako dunak azterna txiki batzuetara mugatu ditu.

\* **Biologoa**



Deba ibaiaren ezker aldean dagoen Mutrikuko Ondarbeltz hondartza.



Zazpi Hondartzak. Mutriku.

Mutriku. Portuko hondartza.



Erreken kanalizazioak eta eraikuntzek balio ekologikoa murriztu badiote ere, oraindik ere edertasun handiko lekua da Saturraran hondartza.

